



Aurretiazko genero eraginaren txostena

Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergaren erreformari buruzko foru arau proiektua

1. Sarrera

Txosten honen helburua da 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, bere 27. artikuluan ezartzen duena betetzea. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren foru arauen aurreproiektuak zein izaera orokorreko xedapen proiektuak osatu eta izapidetzeko orduan, generoaren eraginaren alde aurreko ebaluazioa aurkeztu beharko da haiei atxikita.

Genero eraginaren alde aurretiko ebaluazio txostenak atal hauek eduki beharko ditu:

- arau proiektuaren edo izaera

Informe de evaluación previa de impacto de genero

Proyecto de Norma Foral de reforma del Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas

1. Introducción

Este informe tiene como objetivo dar cumplimiento a lo establecido el artículo 27 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres. Según el mismo, los anteproyectos de Norma Foral y los proyectos de disposiciones de carácter general de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en su proceso de elaboración y tramitación, se acompañarán del correspondiente informe de evaluación previa de impacto de género.

Ese informe de evaluación previa del impacto en función del género deberá de constar de las siguientes partes:

- la descripción general del



orokorreko xedapenaren deskribapen orokorra.

- genero eraginaren alde aurreko ebaluazioa.
- atzemandako ezberdintasunak ezabatzeko neurriak, baita, egindako genero eraginaren ebaluazioaren arabera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak ere.

2. Arau aldaketak

Proiektu honetan proposatutako arau aldaketa aipagarrienak hauek dira:

1. Pertsona fisikoek beren jarduera ekonomikoa egiteko behar dituzten ondasun eta eskubideak eta merkatu antolatuetan kotizatuta edo kotizatu gabe dauden entitateen kapital edo ondareko partaidetzen gaineko jabetza osoa, jabetza soila eta biziarteko usufrukturako eskubidea, jasotako beharkizun batzuk betetzen direnean zergapetuta

proyecto de norma o de disposición de carácter general.

- la evaluación previa del impacto en función del género.
- las medidas para eliminar las desigualdades identificadas y promover la igualdad de mujeres y hombres en función de la evaluación de impacto de género realizada.

2. Modificaciones normativas

Las modificaciones normativas más relevantes planteadas en este proyecto son:

1. Los bienes y derechos de las personas físicas necesarios para el desarrollo de su actividad económica, y la plena propiedad, la nuda propiedad y el derecho de usufructo vitalicio sobre las participaciones en el capital o patrimonio de entidades, con o sin cotización en mercados organizados, cuando se cumplan una serie de requisitos pasan de



egotetik (%75eko hobariarekin kuota osoan), guztiz salbuetsita egotera pasatzen dira.

2. Ondasun hiritar edo landatarrak balio katastralaren arabera hartuko dira aintzat; eta ez beste hiru hauen handiena hartuta: balio katastrala; erosketa balio; Administrazioak beste zerga batzuen ondorioetarako egiaztatua.
3. Zergaren tarifa. 4 tarte izatetik 5 tarte izatera pasatzen da, eta tasa handiena %1,00etik %1,50era igotzen da.

estar grabados (con una bonificación del 75% en la cuota íntegra) a estar exentos en su totalidad.

2. Los bienes de naturaleza urbana o rústica se computarán por su valor catastral, en vez de por el mayor entre el valor catastral, el valor de adquisición y el valor comprobado por la Administración a efectos de otros tributos.
3. Tarifa del impuesto. Se pasa de 4 a 5 tramos, y el tipo máximo se eleva del 1,00% al 1,50%.

2014

| Oinarri likidagarria / Base liquidable | Kuota osoa / Cuota íntegra | Gainerakoa / Resto | Tasa / Tipo % |
|--|----------------------------|--------------------|---------------|
| 0 | 0 | 500.000 | 0,25% |
| 500.000 | 1.250 | 1.000.000 | 0,50% |
| 1.500.000 | 6.250 | 1.500.000 | 0,75% |
| 3.000.000 | 17.500 | gora/ adelante | 1,00% |

eurotan / euros

Proiektua / Proyecto

| Oinarri likidagarria / Base liquidable | Kuota osoa / Cuota íntegra | Gainerakoa / Resto | Tasa / Tipo % |
|--|----------------------------|--------------------|---------------|
| 0 | 0 | 500.000 | 0,25% |
| 500.000 | 1.250 | 1.000.000 | 0,60% |
| 1.500.000 | 7.250 | 1.600.000 | 1,00% |
| 3.100.000 | 23.250 | 3.200.000 | 1,30% |
| 6.300.000 | 64.850 | gora/ adelante | 1,50% |

eurotan / euros



3. Genero eragina

3.1 Genero egokitasuna

Foru Arau proiektu honen xedea da jarduera ekonomikoei atxikitako elementuen eta partaidetza enpresarial jakin batzuen zerga tratamendua hobetzea, justizia tributario horizontalaren arloan hobera egitea eta lurralde historikoen artean tributazioa harmonizatzeko saioa areagotzea.

Proiektuaren amaierako hartzaileak Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergarengatik tributatzeko obligazioa duten pertsona fisikoak dira.

Kasu askotan, zergadun horiek jarduera ekonomikoei atxikitako elementuen eta entitate jakin batzuetako partaidetzen jabeak dira. Eta argi dago lurralde historikoarentzat garrantzitsua dela Gipuzkoako enpresa sare horren eginkizuna. Horregatik, arreta berezia merezi du, sendotasunez ekonomia hobetu eta kalitatezko lanpostuak sortu ahal izateko.

3. Impacto de género

3.1 Pertinencia de género

Este Proyecto de Norma Foral tiene como objetivo mejorar el tratamiento tributario a los elementos afectos a actividades económicas y a determinadas participaciones empresariales, mejorar en el ámbito de la justicia tributaria horizontal y además, avanzar en la armonización de la tributación entre los Territorios Históricos.

Los destinatarios finales del proyecto son las personas físicas con obligación de tributar por el Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas.

En muchas ocasiones, esas personas contribuyentes son titulares de elementos afectos a actividades económicas y a participaciones en determinadas entidades. Y está fuera de duda la importancia que tiene para el Territorio Histórico la labor de ese tejido empresarial guipuzcoano, que debe ser objeto de especial atención para posibilitar que se avance de manera firme en la



Gainera, pertsona fisiko horiek agente ekonomiko benetan garrantzitsuak dira gure lurraldeko sare sozio-ekonomikoan, erabaki garrantzitsuak hartzen dituztelako inbertsio, enplegu sorrera, eta abarri dagokionez.... Hau da, eragina dute pertsonen harreman sozialekin zuzenean lotuta dauden gaitan, haien bizi baldintzetan eta baliabideen eskuragarritasunean (lan baldintzak, soldatak, ingurune fisikoa...).

Hortaz, kontuan izanik:

- amaierako talde hartzailea pertsona fisikoak direla.
- xedapen normatiboak eragina duela emakumeek eta gizonek baliabideak eskuratzeko edota kontrolatzeko moduan.

Ondorioztatu behar da egokia dela arau proiektua genero ikuspegitik aztertzea.

mejora de la economía y en la creación de puestos de trabajo de calidad.

Además, esas personas físicas son agentes económicos que tienen una especial relevancia dentro del entramado social y económico de nuestro territorio, ya que los mismos son importantes centros de decisión respecto a inversiones, creación de empleo... Es decir, influyen en cuestiones directamente vinculadas a las relaciones sociales de las personas, sus condiciones de vida y acceso a los recursos (condiciones laborales, salarios, entorno físico...).

Por tanto, y teniendo en cuenta que:

- el grupo destinatario final son las personas físicas.
- el proyecto normativo afecta al acceso y/o control de los recursos por parte de las mujeres y los hombres.

Se determina que es pertinente el análisis de género del proyecto normativo.



3.2. Genero eraginaren balorazioa

3.2 Valoración del impacto de género

3.2.1. Hasierako egoera

3.2.1 Situación inicial

2014ko Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergaren datu nagusiak aztertuta, ikusten da emakumezkoek gizonezkoek baino presentzia handiagoa dutela.

El análisis de los principales datos del Impuesto sobre la Riqueza y las Grande Fortunas de 2014 muestra que las mujeres tienen mayor presencia que los hombres.

- Aitorpen kopuruan, emakumezkoak %52,8 dira.
- Oinarri likidagarria %50,5.
- Ordaintzeko kuotan, zenbateko osoaren %51,8 hartzen dute.

- En el número de declaraciones, las mujeres representan el 52,8%.
- En la base liquidable el 50,5%.
- En la cuota a ingresar, representan el 51,8% del importe total.

ABERASTASUNAREN ETA FORTUNA HANDIEN GAINEKO ZERGA

2014

IMPUESTO SOBRE LA RIQUEZA Y LAS GRANDES FORTUNAS

| Sexua / Sexo | Aitorpen kopurua / N° declaraciones | | Oinarri likidagarria / Base liquidable | | Ordaintzeko kuota / Cuota a ingresar | |
|------------------------|-------------------------------------|--------------|--|--------------|--------------------------------------|--------------|
| | Guztira / Total | % | Guztira / Total | % | Guztira / Total | % |
| Emakumezkoak / Mujeres | 4.254 | 52,8 | 6.056.576.827 | 50,5 | 30.503.490 | 51,8 |
| Gizonezkoak / Hombres | 3.805 | 47,2 | 5.928.150.102 | 49,5 | 28.438.053 | 48,2 |
| GUZTIRA / TOTAL | 8.059 | 100,0 | 11.984.726.929 | 100,0 | 58.941.543 | 100,0 |

Zenbatekoak eurotan / Importes en euros

Baina batz besteko zenbatekoak aztertzen badira, ikusten da

Pero si se analizan los importes medios, se observa que las mujeres



emakumezkoek gizonzkoek baino zenbateko txikiagoak aurkezten dituztela.

- Emakumezkoek aitortutako batz besteko oinarri likidagarria 1,4 milioi eurotako da, eta gizonzkoena, berriz, 1,6 milioi eurokoa.
- Ordaintzeko batz besteko kuota 7.171 eurokoa da emakumeetan, eta 7.474 euro gizonzkoetan.

presentan unas cuantías inferiores a los hombres.

- La base liquidable media declarada por las mujeres es de 1,4 millones de euros, frente al 1,6 millones de euros de los hombres.
- La cuota a ingresar media de las mujeres es de 7.171 euros frente a los 7.474 euros de los hombres.

ABERASTASUNAREN ETA FORTUNA HANDIEN GAINEKO ZERGA

2014

IMPUESTO SOBRE LA RIQUEZA Y LAS GRANDES FORTUNAS

| Sexua / Sexo | Oinarri likidagarria / Base liquidable | Ordaintzeko kuota / Cuota a ingresar |
|---------------------------|---|---|
| | Batz bestekoa / Promedio | |
| Emakumezkoak / Mujeres | 1.423.737 | 7.171 |
| Gizonzkoak / Hombres | 1.557.990 | 7.474 |
| GUZTIRA / TOTAL | 1.487.123 | 7.314 |

Zenbatekoak eurotan / Importes en euros

3.2.2 Proposatutako neurrien eragina

Proposatutako neurriek izango duten eragina aurreikusteko, oinarri gisa 2014ko ekitaldiko Aberastasunaren

3.2.2 Efectos de las modificaciones propuestas

Para la estimación del impacto de las medidas propuestas se han utilizado los datos de las declaraciones del



eta Fortuna Handien gaineko Zergako datuak erabili dira (2015ean egindako aitortpena).

Horrela, aztertutako hiru neurri nabarmenen (salbuespena jarduera ekonomikoak eta partaidetza jakin batzuk, balio katastrala ondasun higiezinetan, eta tarifaren aldaketa) eragin bateratua ondorengoa da:

Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas de 2014 (presentadas en 2015).

Así, el efecto conjunto de las tres principales medidas analizadas (exención actividades económicas y ciertas participaciones, valor catastral en los bienes inmuebles, y modificación de la tarifa) es el siguiente:

Aitortpen kopurua / Número de declaraciones

| Sexua / Sexo | Aitortpen kopurua / N° declaraciones | | |
|------------------------|--------------------------------------|-------|--------------------|
| | 2014 | 2015 | Aldea / Diferencia |
| Emakumezkoak / Mujeres | 4.254 | 3.813 | -441 -10,4 |
| Gizonezkoak / Hombres | 3.805 | 3.282 | -523 -13,7 |

Salbuetsita uztea jarduera ekonomikoen elementuak eta partaidetza jakin batzuk, eta baita balio katastrala bakarrik erabiltzea ondasun higiezinak baloratzerakoan, aitortpen kopuruaren beherakada ekartzen du. Zehazki, 964 aitortpen (%12,0) aitortzeko bete beharraren azpitik egotera pasatzen dira.

Dejar exentos los elementos de las actividades económicas y ciertas participaciones, así como tener en cuenta únicamente el valor catastral a la hora de valorar los bienes inmuebles, provoca un descenso del número de declaraciones. Concretamente, 964 declarantes (12,0%) pasan a estar por debajo de



Emakumezkoen kasuan, portzentaje hori zertxobait txikiagoa da (%10,4), eta gizonezkoetan zertxobait handiagoa (%13,7).

Beraz, aitorten kopuruari dagokionez, neurri handiagoan eragiten die gizonezkoen emakumezkoen baino.

la obligación de declarar. En el caso de las mujeres ese porcentaje es algo menor (10,4%), y en los hombres algo mayor (13,7%).

Es decir, en cuanto a número de declaraciones, afectan en mayor medida a hombres que a mujeres.

Oinarri likidagarria / Base liquidable

| Sexua / Sexo | Oinarri likidagarria / Base liquidable | | | |
|------------------------|--|--------------|--------------------|--------------|
| | 2014 | 2015 | Aldea / Diferencia | |
| Emakumezkoak / Mujeres | 6.057 | 4.246 | -1.811 | -29,9 |
| Gizonezkoak / Hombres | 5.928 | 3.722 | -2.206 | -37,2 |
| GUZTIRA / TOTAL | 11.985 | 7.968 | -4.017 | -33,5 |

Zenbatekoak milioi eurotan / Importes en millones de euros

Salbuetsita uztea jarduera ekonomikoaren elementuak eta partaidetza jakin batzuk, eta baita balio katastrala bakarrik erabiltzea ondasun higiezinak baloratzerakoan, aitortutako oinarri likidagarria jaisteak ekartzen du (4.107 milioi euro gutxiago; -%33,5).

Emakumezkoetan portzentaje hori zertxobait txikiagoa da (-%29,9), eta gizonezkoetan handiagoa (-%37,2).

Beraz, aitortutako oinarri likidagarriari

Dejar exentos los elementos de las actividades económicas y ciertas participaciones, así como tener en cuenta únicamente el valor catastral a la hora de valorar los bienes inmuebles, provoca un descenso de la base liquidable declarada de 4.017 millones de euros (-33,5%).

En las mujeres ese porcentaje es algo menor (-29,9%), y en los hombres mayor (-37,2%).

Es decir, respecto a la base liquidable



dagokionez, beherakadak neurri handiagoan eragiten die gizonezkoei emakumezkoei baino.

declarada, la caída afecta en mayor medida a los hombres que a las mujeres.

Ordaintzeko kuota / Cuota a ingresar

| Sexua / Sexo | Ordaintzeko kuota / Cuota a ingresar | | |
|---------------------------|--------------------------------------|-------------------|---------------------|
| | 2014 | 2015 | Aldea / Diferencia |
| Emakumezkoak / Mujeres | 30.503.490 | 31.500.887 | 997.397 3,3 |
| Gizonezkoak / Hombres | 28.438.053 | 27.378.058 | -1.059.995 -3,7 |
| GUZTIRA / TOTAL | 58.941.543 | 58.878.945 | -62.598 -0,1 |

Zenbatekoak eurotan / Importes en euros

Nahiz eta jarduera ekonomikoen elementuak eta partaidetza jakin batzuk salbuetsita uzteak, eta baita balio katastrala bakarrik erabiltzea ondasun higiezinak baloratzerakoan, aitortutako oinarri likidagarria jaistea ekartzen duen, eta ondorioz ordaintzeko kuota txikiagoa, tarifaren aldaketak (tarte berria eta tasa handiena %1,00etik %1,50era igotzea) azkenean eragiten duena da eragina zerga-bilketan ia-ia hutsa izatea (-62.598 euro; -%0,1).

Si bien dejar exentos los elementos de las actividades económicas y ciertas participaciones, así como tener en cuenta únicamente el valor catastral a la hora de valorar los bienes inmuebles, provoca un descenso de la base liquidable y en consecuencia una menor cuota a ingresar, la modificación de la tarifa (nuevo tramo y elevar el tipo máximo del 1% al 1,50%) hace que al final el efecto recaudatorio sea prácticamente nulo (-62.598 euros; -0,1%).



Baina eragin hori era ezberdinean banazten da emakume eta gizonen artean:

- Emakumeek 0,9 milioi euro gehiago ordaintzen dute (+%3,3).
- Gizonek 1,1 milioi euro gutxiago ordaintzen dute (-%3,7).

Pero ese efecto se distribuye de manera distinta entre mujeres y hombres:

- La mujeres pagan 0,9 millones de euros más (+3,3%).
- Los hombres pagan 1,1 millones de euros menos (-3,7%).

Ordaintzeko batz besteko kuota / Cuota media a ingresar

| Sexua / Sexo | Ordaintzeko batz besteko kuota / Cuota media a ingresar | | |
|---------------------------|--|--------------|-----------------------|
| | 2014 | 2015 | Aldea / Diferencia |
| Emakumezkoak / Mujeres | 7.171 | 8.261 | 1.091 15,2 |
| Gizonezkoak / Hombres | 7.474 | 8.342 | 868 11,6 |
| GUZTIRA / TOTAL | 7.314 | 8.299 | 985 13,5 |

Proposatutako neurriak direla-eta, zergadunek ordaindu beharreko batz bestekoa 7.314 eurotik 8.299 eurora pasatzen da (985 euro gehiago; +%13,5). Emakumezkoen kasuan, igoera hori zertxobait handiagoa da (1.091 euro gehiago; +%15,2); eta gizonezkoetan, aldiz, zertxobait txikiagoa (868 euro gehiago; +%11,6).

Como consecuencia de las medidas propuestas la cuota media a ingresar por declarante pasa de 7.314 euros a 8.299 euros (985 euros más; +13,5%). En el caso de la mujeres el incremento es algo mayor (1.091 euros más; +15,2%); mientras que en los hombres es algo menor que la media total (868 euros más; +11,6%).



3.2.3 Genero eraginaren balorazioa

Datuak ikusita, emakumezkoak (3.813) kaltetuta gertatzen dira gizonezkoen aldean (3.282). Izan ere, proposatutako neurriekin:

- Aitorpen kopuru handiagoa aurkezten dute: %53,7 / %52,8.
- Oinarri likidagarri gehiago aitortzen dute: %53,3 / % 50,5.
- Gehiago ordaintzen dute, bai zerga osoa kontuan hartuta (%53,5 / %51,8) eta baita batz besteko zenbatekoan ere.

Dena den, komeni da aurreko baieztapena bere testuinguruan kokatzea. Horrela:

- Ukitutako kolektiboa –ondare minimo jakin bat duten emakume eta gizonak–, oso txikia da Gipuzkoako gizon eta emakume

3.2.3 Valoración del impacto de genero

A la vista de los datos numéricos, las mujeres (3.813) salen perjudicadas respecto a los hombres (3.282) en el sentido de que con las medidas propuestas:

- Presentan un mayor número de declaraciones: 53,7% / 52,8%.
- Declaran una mayor base liquidable: 53,3% / 50,5%
- Pagan tanto un mayor porcentaje del total del impuesto (53,5% / 51,8%), como un mayor importe medio por declarante.

No obstante conviene contextualizar la afirmación anterior. En efecto:

- El colectivo afectado, mujeres y hombres con un patrimonio mínimo determinado, es muy pequeño en relación a la población gipuzkoana de



kopuru osoarekiko, eta, beraz, biztanlerian duen eragina ere oso txikia da.

- Zergak partaidetza enpresarial jakin batzuk uzten ditu kanpo (gizonen ondarean presentzia handiagoa dutenak. Hala ere, ondare horrek zeharka eragiten du gizon eta emakumeen bizi kalitatean –dauzkagun datuekin nekez ebaluatu daiteke eragin hori–, zeren eta salbuespenaren azken helburua baita enpresen kapitalizazioa erraztea eta, horren ondorioz, enplegua hobetzea.

Badirudi eragin hori ez dela gertatzen ondasun higiezinak edo bestelako ondasun higigarriak edukitzeak dakarren aberastasunean.

- Ondare higiezina emakumeen aberastasunaren zati garrantzitsu bat da, eta balio katastralaren arabera konputatzen denez, horrek kasu askotan jaitsi egiten du zergan duen balorazioa, gaurko araudian aplikatutako beste irizpide batzuen

hombres y mujeres y por tanto su impacto es también pequeño en el conjunto de la población.

- El impuesto exime determinadas participaciones empresariales (que tienen mayor representación en el patrimonio de hombres). No obstante este patrimonio tiene un impacto indirecto, de difícil evaluación con los datos disponibles, en la calidad de vida de hombres y mujeres, ya que la finalidad última de la exención es favorecer la capitalización de las empresas y en consecuencia la mejora del empleo.

Este impacto no se produce aparentemente en la riqueza derivada de la tenencia de bienes inmuebles o de otros bienes muebles.

- El patrimonio inmobiliario, que constituye una parte importante de la riqueza de las mujeres se computa conforme a su valor catastral, de manera que en muchos casos disminuye su valoración a efectos del



aldean.

Halere, proiektu honek eduki lezakeen genero eragina alde batera utzita, berriz ere azpimarratu behar da, bere helburu nagusie artean daudela:

- zerga trataera egokia ematea Gipuzkoako enpresa sareari, sendotasunez ekonomia hobetu eta kalitatezko lanpostuak sortu ahal izateko.
- aurreko sistemak sor zitzakeen justizia tributario horizontaleko arazoak ezabatzea ondasun higiezinaren balorazioaren kasuan. Izan ere, antzeko ondasun higiezinak zergan balio desberdinen arabera hartu behar baitziren aintzat, kasuaren arabera.
- zerga-bilketa maila egokia mantendu, adibidez gizarte arloko prestazioak edo inbertsio publikoa

impuesto respecto a otros criterios aplicados en la normativa actual.

Pero independientemente del posible impacto de género que pueda suponer este proyecto, es necesario volver a resaltar que entre los objetivos principales del mismo están:

- dar un tratamiento fiscal adecuado al tejido empresarial guipuzcoano, para posibilitar que se avance de manera firme en la mejora de la economía y en la creación de puestos de trabajo de calidad.
- eliminar problemas de justicia tributaria horizontal que el sistema anteriormente vigente podía generar, en el caso de valoración de inmuebles, ya que inmuebles similares debían ser computados en el Impuesto por valores diferentes según fuese el caso.
- mantener un nivel recaudatorio adecuado, para evitar que se resientan, por ejemplo, las



kaltetu ez daitezten.

Gainera, proiektuaren azalpenean aipatzen den bezala, proposatutako neurri hauekin ez da amaitzen ondarearen tributazioari buruzko erreforma. Izan ere, hemen bakar-bakarrik jasota daude premiarik handienaz egin beharreko aldaketak. Eta ondarearen gaineko zerga berri bat onartzeko egin behar diren lanak egingo dira, gaur egun indarrean dagoen zerga ordezkatzeari nahi baita. Lan horietan, alderdi garrantzitsuak aztertuko dira, hala nola pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarekin batera osatzen den muga eta garrantzizko beste alderdi batzuk. Izan ere, Gipuzkoan ondarearen gaineko zerga modernoa eta gaurkotua ezarri nahi da, ahal den neurrian gainerako lurralde historikoekin harmonizatua.

Beraz, hartutako neurriak eta datozen ekitaldietan hartuko direnak, aukera

prestaciones en el ámbito social o la inversión pública.

Además, tal como se señala en la exposición de motivos del proyecto, con estas medidas propuestas no se termina con la reforma de la tributación del patrimonio. Es que aquí, se recogen exclusivamente aquellas modificaciones que resulta necesario incluir con la máxima urgencia. Y se van a acometer los trabajos necesarios para aprobar un nuevo Impuesto sobre el Patrimonio, que venga a sustituir al actualmente vigente, en el que se analizarán aspectos de relevancia como el límite conjunto con el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y otras cuestiones importantes, de cara a dotar a Gipuzkoa de un Impuesto sobre el Patrimonio moderno, acorde con el momento actual y, en la medida de lo posible, armonizado con el resto de los Territorios Históricos.

Por tanto, las medidas propuestas y las que se tomarán en ejercicios



emango dute genero berdintasunaren aldeko politikak aurrera eramateko, eta, oro har, gizarte desberdintasunak desagerrarazteko politikak aurrera eramateko.

Azkenik, eta hizkuntzaren erabilera sexistari dagokionez, proiektuaren terminoak egokitu dira. Halere, eta segurtasun juridikoa dela-eta, badira termino batzuk aldatu ez direnak, Ekonomi Ituanren 3. artikulua ezarritako harmonizazio arauak direla-eta, Zergei buruzko Lege Orokorrak ezarritako terminologia eta kontzeptu berean errespetatu behar direnak.

Donostia, 2015eko irailaren 23a

futuros, permitirán mejorar la realización de unas políticas públicas que incidan en la igualdad de género y en la eliminación de las desigualdades sociales, en general.

Finalmente y respecto al uso sexista del lenguaje, se ha procedido a adaptar los términos del proyecto, si bien, y por seguridad jurídica, no se han modificado aquellos términos que por las reglas de armonización establecidas en el artículo 3 del Concierto Económico, deben respetarse en la misma terminología y conceptos que los establecidos en la Ley General Tributaria.

San Sebastián, a 23 de septiembre de
2015

Sin/Fir.:

AZTERLANETAKO ATALBURUA /JEFE SECCIÓN DE ESTUDIOS